

AKTA, 2005EKO MARTXOAREN 9KOA

Organoa: Udal batzarra

Batzarra: osoko bilkura berezia eta presakakoa

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2005/03/09

Ordua: Hasiera 19:30 – Amaiera 20:30

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

Alkatea:

Santiago Garmendia Olano

Zinegotziak:

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Joseba Mirene Garmendia Ustoa

Idazkaria:

Maria Soledad Alcayaga Garmendia

AZTERGAIAK:

1.- 2004/10/01; 2004/11/11; 2004/11/30 ETA 2005/01/25EKO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

3.- 2004KO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

4.- 2004KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

5.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO LEHEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA - MODALITATEA: KREDITU TXERTAKETAK

6.- 2005EKO UDAL AURREKONTUA ONESTEKO PROPOSAMENA

7.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO 2 ZN.DUN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

8.- KOB RATU EZIN DIREN KREDITUEI BAJA EMATEKO PROPOSAMENA

9.- ZIZURKIL S.L. ERAIKUNTZA ETA ESKABAZIO LANAK ENPRESAREN 5000004 ZENBAKIDUN FAKTURA ONESTEKO PROPOSAMENA

10.- OTSAILAREN 8KO 2/2005 FORU DEKRETUAREN BABESEAN OBRAK BURUTZEKO DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO PROPOSAMENA

11.- 1 E.U.KO UNITATEAREN XEHETASUN AZTERKETA TESTU BATERATUA ONESTEKO PROPOSAMENA

12.- 2005 EKITALDIRAKO PROPOSATUTAKO LAN BALDINTZAK ONESTEKO LANGILEGOAREN ESKAERA ONESTEKO PROPOSAMENA

13.- ALARGUNTZAKO PENSIOEI BURUZ ELKARTE DESBERDINAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA

ESAN EGINAK

1.- 2004/10/01; 2004/11/11; 2004/12/03 ETA 2005/01/25EKO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

Izenburuko bileretako agirien berri emanik udal batzarrak, aho batez, erabaki du onetsi aipatu agiriak idatzita dauden bezala.

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

Alkateak, ondorengo zenbakiekin emandako dekretuen berri eman da:

2004/36, 2004/37, 2004/38, 2004/39 eta 2005/1etik 2005/8ra.

Udal batzarra jakinaren gainean geratu da.

3.- 2004KO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Kontuan izanik, aipatu espedientea 2004ko abenduaren 31ko alkate dekretuz onetsi zela, udal organu horri bai zegokion erabaki hura hartzea, Udal batzarra erabaki horren jakinaren gainean geratu da.

4.- 2004KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Puntu honetan, 2004ko udal aurrekontuaren likidazioa onetsiz udal honetako alkateak hartutako erabakiaren berri eman da eta udal batzarra jakinaren gainean geratu da.

2004ko Gaintzako Udaleko aurrekontuaren likidazioaren laburpena:

| | | |
|--|------------|--------------|
| 1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2004-12-31n: | | 34.358,83.- |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2004-12-31n: | | 156.487,02.- |
| Aurrekontuko zordunak: | 145.585,51 | |
| Aurrekontuz kanpokoak: | 10.901,51 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2004-12-31n: | | 10.749,19.- |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 7.568,46 | |
| Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak: | | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 3.180,73 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | | |
| 4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3): | | 180.096,66.- |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | 1.517,92.- |
| 6.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5): | | 178.578,74.- |

| | |
|--|--------------|
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina: | 138.307,19.- |
| 8.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina (6-7): | 40.271,55.- |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | -67.714,60.- |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | |
| 11.- Doiketak, altxortegi-gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | - |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | - |
| 13.- Aurrekontu-emaitza (9+10+11+12): | -67.714,60.- |
| 14.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak: | 50.273,97.- |
| 15.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak: | |
| 16.- Kreditu-gerakinak, guztira (14+15): | 50.273,97.- |

5.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO LEHEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA - MODALITATEA: KREDITU TXERTAKETAK

Puntu honetan, 2005eko udal aurrekontuaren aldaketako lehen espedientearen berri eman da. Modalitatea: Kreditu txertaketak. Aipatu espedientearen udal honetako alkateak onetsia dago. Udal batzarra jakinaren gainean geratu da.

Kreditu aldaketaren espedientearen laburpena:

| Aurrekontu partida | | Kd. (7) | Deskripzioa | Zenbatekoa |
|---|----------------------|------------|--------------------------------|--------------------|
| Aurreko ekitaldikoa | Ekitaldi honetakoa | | | |
| 1.0000.131.440.00.01 | 1.0000.131.440.00.01 | | Denboraldiko perts. Laborala | 1.181,42.- |
| 1.0000.160.440.00.01 | 1.0000.160.440.00.01 | | Gizarte Segur. Ordainketa | 451,49.- |
| 1.0000.601.440.00.01 | 1.0000.601.440.00.01 | | Azpieg. Eta urb. (Argin. Hob.) | 48.641,06.- |
| TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA | | | | 50.273,97.- |

2005eko Aurrekontuan kredituak txertatzea finantzatzeko erabili beharreko finantza-baliabideak.

| Sarrereren kontzeptua | | Kd. (8) | Deskripzioa | Zenbatekoa |
|---|----------------------|------------|------------------------|--------------------|
| Aurreko ekitaldikoa | Ekitaldi honetakoa | | | |
| 2.0000.870.000.00.01 | 2.0000.870.000.00.01 | | Diruzaintzako gerakina | 50.273,97.- |
| TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA | | | | 50.273,97.- |

6.- 2005EKO UDAL AURREKONTUA ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik 2005. urtealdiko udal aurrekontu orokorraren espedientea onesteko proposamena, kontuen komisio berezia, administrazioa eta gizarte ongizate batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onetsi aipatu espedientea.

Legezko informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipaturiko aurrekontu orokorra behin betirako onartuta geratuko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

Ondorengo kapitulukako laburpena du 2005eko Udal Aurrekontuak:

SARREREN EGOERA

| <i>Kapitulua</i> | <i>Izena</i> | <i>€uroak</i> |
|------------------|-------------------------------------|---------------------|
| 1 | Zuzeneko zergak | 13.167,83.- |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 10.708,04.- |
| 4 | Transferentzia arruntak | 162.707,74.- |
| 5 | Ondore-sarrerak | 1.111,94.- |
| 6 | Inbertsio errealak besterenganatzea | 42.070,85.- |
| 7 | Kapital transferentziak | 129.222,55.- |
| | <i>Guztira</i> | <u>358.988,95.-</u> |

GASTUEN EGOERA

| <i>Kapitulua</i> | <i>Izena</i> | <i>€uroak</i> |
|------------------|----------------------------------|---------------------|
| 1 | Pertsonal-gastuak | 98.914,32.- |
| 2 | Gastuak ondasun arrunt eta zerb. | 53.721,22.- |
| 3 | Finantza-gastuak | 2.753,88.- |
| 4 | Transferentzia arruntak | 21.862,82.- |
| 6 | Inbertsio errealak | 172.207,15.- |
| 7 | Kapital-transferentziak | 995,34.- |
| 9 | Finantza Pasiboak | 8.534,22.- |
| | <i>Guztira</i> | <u>358.988,95.-</u> |

**7.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAKO 2
ZN.DUN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Ikusirik 2005eko udal aurrekontuaren kreditu aldaketako 2. Zn.dun espedientea onesteko proposamena, kontuen komisio berezia, administrazioa eta gizarte ongizate batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onetsi aipatu espedientea, kapitulukako laburpena ondorengoa izanik:

| Aurrekontu-Partida | Kontzeptua | Kredituak | | |
|-----------------------------|--------------------------------------|---------------------|--------------------|-----------------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin-betikoak |
| 1.0000.692.000.00.00 | Frontoia berritzeko proiektua | 105.393,49.- | 53.480,51.- | 158.874,00.- |
| GUZTIRA | | 105.393,49.- | 53.480,51.- | 158.874,00.- |

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO

| Sarrerren kontzeptuak Edota gastuen partidak | Baliabidearen kontzeptua (11) | Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak | Baliabidearen partziala |
|---|--|---|------------------------------------|
| 2.0000.870.000.00.01 | Diruzaintzako gerakina | 53.480,51.- | 53.480,51.- |
| GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 53.480,51.- | 53.480,51.- |

8.- KOB RATU EZIN DIREN KREDITUEI BAJA EMATEKO PROPOSAMENA

Ikusirik udalak kobratu ezin duen kreditu bati baja emateko aurkeztutako proposamena; hau da kontusaila 781.000.00.00.2002 eta kopurua 1.517,92 euro, kontuen komisio berezia, administrazioa eta gizarte ongizate batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du: onetsi aipatu proposamena.

9.- ZIZURKIL S.L. ERAIKUNTZA ETA ESKABAZIO LANAK ENPRESAREN 5000004 ZENBAKIDUN FAKTURA ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik izenburuko gaiari dagokion espediente orokorra. Kontuan hartuta, teknikoak egindako txostenean alde informatu bada ere faktura hori, obrako erremateak behar bezala egin arte ezin dela ordainketa egin.

Kontuen komisio berezia, administrazioa eta gizarte ongizate batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorriz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du: Onetsi Zizurkil S.L. eraikuntza eta Eskabazio Lanak Enpresaren 5000004 zenbakidun faktura, bere ordainketa, obrak ondo errematatutakoan egingo delarik. Ondorioz teknikoaren informaren baitan geratzen da ordainketa egitea.

10.- OTSAILAREN 8KO 7/2005 FORU DEKRETUAREN BABESEAN OBRAK BURUTZEKO DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO PROPOSAMENA

Otsailaren 8ko 7/2005 Foru Dekretuaren berri emanik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.000 biztanletik beherako udalerriei diru laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen dituena. Laguntza horiek udal jabetzako azpiegiturak eremu libreak, aisialdirako gunek eta ekipamenduak finantzatzeko helburua dute.

Ikusirik udalerrri honek dauzkan beharren artean HERRIKO HILERRI BERRIAREN PROIEKTUA aurkitzen dela.

Kontuan izanik udal honen egoera ekonomikoak proiektu hori burutzeko dirulaguntzak eskatzea eta obrak fase desberdinetan burutzea aholkatzen duela.

Kontuan izanik joan zen urtean ere herriko frontoia berritzeko proiekturako dirulaguntza eskaerarekin batera, kanposantu berriaren proiektua burutzeko dirulaguntza eskatu zitzaiola Gipuzkoako Foru Aldundiari, nahiz orduan, lehendabiziko proiektuari dirulaguntza eman.

Gaia eztabaidatu ondoren, Kontuen Komisio Bereziak, Administrazioa eta Gizarte Ongizate Batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorriz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

A) Otsailaren 8ko 7/2005 Foru Dekretuaren babesean, Gipuzkoako Foru Aldundiari 150.000 euroko diru laguntza eskatzea, "HERRIKO HILERRIA" izeneko proiektuko lehen fasean sartutako obrak exekutatzeko.

B) Gipuzkoako Foru Aldundiari adieraztea, erabaki honen aurreko atalean adierazitako obrak egin ahal izateko ez dagoela inongo arazorik, HILERRIA eraiki behar den lur zorua udalaren jabetzako delako.

C) Konpromisoa hartzea, erabaki honen A) atalean adierazitako proiektuko obren finantziazioari dagokionez, udalak jasoko ez duen jarduketaren zatirako behar den kreditua xedatzeko, 2005eko udal aurrekontuan.

D) Erabaki honen A) atalean eskatutako diru laguntza jasotzen bada, laguntza hori arautzen duen erregelamenduan ezarritako eginkizunak betetzeko konpromisoa hartzea".

11.- 1 E.U.KO UNITATEAREN XEHETASUN AZTERKETA TESTU BATERATUA ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik herri honetako Arau Subsidiarioetako 1 exekuzio unitatearen xehetasun azterketari buruzko espediente orokorra, eta bereziki udalbatzar honek 2004ko martxoaren 18an hartutako erabakia eta 2004ko azaroaren 26n aurkeztutako testu bateratua.

Gaia eztabaidatu ondoren, Kontuen Komisio Bereziak, Administrazioa eta Gizarte Ongizate Batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onetsi behin-betiko izaeraz herri honetako 1 exekuzio unitatearen xehetasun azterlanaren testu bateratua.

12.- 2005 EKITALDIRAKO PROPOSATUTAKO LAN BALDINTZAK ONESTEKO LANGILEGOAREN ESKAERA ONESTEKO PROPOSAMENA

2005 ekitaldirako Gaintzako udaletxeko langileen lan baldintzak proposatuz aurkeztutako eskaeraren berri emanik, gaia eztabaidatu ondoren, Kontuen Komisio Bereziak, Administrazioa eta Gizarte Ongizate Batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du, aipatu eskaera mahai gainean uztea.

13.- ALARGUNTZAKO PENTSIOEI BURUZ ELKARTE DESBERDINAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik alarguntzako pentsioei buruz elkarte desberdinak aurkeztutako mozioa, gaia eztabaidatu ondoren, Kontuen Komisio Bereziak, Administrazioa eta Gizarte Ongizate Batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onetsi aipatu mozioan egindako eskaria, zeinek honela dioen:

1.- Subsidiarioki arazoa konpontzeko eskumena duten erakundeei (batik bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legibiltzarrari eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei) honako eskaria egin diezaiela: etxebitza besterik ez duten emakume alargunei pixkanaka beraien pentsioa osatuko duten formulak bidera dezatela eta osagarri bat gehi diezaitela kopuru honetan: lanbide arteko gutxieneko soldataren (460,5€) 1,5ari dagokiona, harik eta hileko pentsioa 691 eurokoa izatera iritsi arte.

2.-Halaber, Euskadiko gure komunitateko erakunde horiek eskaria luza diezaietela estatuko beste erakundeei, hala nola, Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalari eta Gobernu Zentralari, izenpetzen duten elkarteek eskatutako eran alarguntzako pentsioak egunera ditzaten.

3.- Udalak, eskari hori onarturik, aipatu erakundeei jakinarazteaz gain, hartutako erabakiaren berri herriari eman diezaiola gizarte-mailako arazo larri honetaz herritarrak sentsibilizatuz eta egoera horretan dauden adineko pertsonetikiko elkartasuna bultzatuz.

Besterik gabe bilera amaitu da, goiean adierazitako leku eta orduan.